

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hezkuntza departamentuak dagoeneko onartu du 2018-19 ikasturteko beka deialdia

Unibertsitate sarbide-ikastaroa UNEDen egiten ari diren 25 eta 45 urtetik gorako ikasleek ere eskatu ahalko dute diru-laguntza, Ministerioaren deialdian ez bezala

Ostirala, 2018.eko irailak 7

Irailaren 6an onartu du Hezkuntza departamentuak 2018-19 ikasturteko beka-deialdi orokorra. Derrigorrezko ikasketen ondorengo eta unibertsitateko ikasketak egiten dituzten ikasleei zuzendutako laguntzak dira, eta 4.334.104 euro bideratuko dira horretara. Nafarroako gobernuak ematen dituen beka Ministerioaren laguntzen osagarri dira.

Beken deialdia aurki argitaratuko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Laguntzak seme-alabak ez-derrigorrezko ikasketa dituzten familientzako dira, irakaskuntza, garraio, jantoki eta ostatu gastuak arintzeko. Unibertsitate gradu eta master arautuak, nahiz Lanbide Heziketa, Batxilergoa, ikasketa artistikoak, erlijio-ikasketak eta hizkuntzak ikasten ari direnentzat, hain zuzen ere. Era berean, unibertsitate sarbide-ikastaroa UNEDen egiten ari diren 25 eta 45 urtetik gorako ikasleek ere eskubidea dute deialdian parte hartzeko, Ministerioaren deialdian ez bezala.

Familia-errenta

Familia-errentaren arabera kalkulatu dira beka hauek, zehazki, diru-sarrera (4 mailatan banaturik) eta familiako kide kopuruaren arabera. Esaterako, 4 kideko familia bateko pertsona batek, 28.288 euroko diru-sarrera edukita, 1.mailan legoke (diru-sarrera baxuenean) eta 55.108 euroko (4.maila) diru sarrera duen 4 kideko familia kide bati baino diru kopuru handiagoa legokioke.

Unibertsitate ikasketei dagokienez, Nafarroako Unibertsitate publikoak eskaintzen ez dituen ikasketak Nafarroako Unibertsitatean zein estatutuko beste zentro publiko nahiz pribatuetan egin nahi duen ikasleak iazko deialdian lehenengoz onartutako aukera berberetan aurkez daiteke deialdira. Izan ere, aldaketok errekurritu baziren ere, Nafarroako Auzitegi Gorenak atzera bota zuen errekurtsioa, deialdiaren baliozkotasuna adieraziz.